



Florent VERGNES | AFP

IKUSMIRA

ATSEDENALDIRIK GABE EBOLAREN KONTRAKO BORROKAN AFRIKAN

Ebolaren kontrako borroka ez du atsedenik. Kongoko Errepublika Demokratikoan lehenengo gaixoak antze-
man zituztenetik, gobernuz kanpoko erakundeak eta
osasun langileak buru belarri ari dira prebentzio lane-
tan, herriz herri, bidaiariei nahiz bertakoei tenperatura
hartzen, goiko irudian bezala, gaixotasuna zabaltzea

saihesteko. Argazkia Afrika Erdiko Errepublikako Bangi herrian atera zuten, ekainaren 3an. Kon-
goko Errepublika Demokratikoarekin muga egiten du Bangik eta Ebola birusa zabaldu dezaketen
animalia gehienak bertatik igarotzen dira; horregatik, osasun kontrolak areagotu dituzte zonal-
dean. Informazioa funtsezkoa da. Kongoko Errepublika Demokratikoan Unicefek abian ipini duen
kanpainak 800.000 lagunengana iritsi nahi du. Guztien inplikazioa behar-beharrezkoa dela na-
barmendu du erakundeak. Ebolari aurre egiteko 2.500 irakasle, 53.000 ikasle eta 30 kazetari
ahaldundu ditu jada. Ahalegin guztiak gutxi baitira gaixotasunari ateak ixteko. Ainar Lertxundi